

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Lezaungo "Basabere" baserri-eskola irekitzen lagundu du

Baserrikoak eta basatiak diren animaliekin egindako jardueraz gozatzeko aukera eskaintzen du, bai eta baratze ekologikoaz eta bihitegiak gozatzeko aukera ere

Viernes, 13 de febrero de 2015

Nafarroako Gobernuak [Lezaungo "Basabere" baserri-eskola](#) irekitzen lagundu du. Leku horrek bisitariari baserrikoak eta basatiak diren animaliekin egindako jardueraz gozatzeko aukera ematen dio, bai eta baratze ekologikoaz eta bihitegiak gozatzeko aukera ere.

Zehazki, instalazioetan honako hauek daude: ahateentzako urmaela, antzarak, beltzargak eta dortokak; etxeko animaliak dituen baserria; hegazti-hazkuntzan parte hartu ahal izateko oilategia; bihitegia, animaliak elikatzeko erabilitako pentsu, zereal eta baskekin; baratze ekologikoa zerealekin; negutegia eta sendabelarrak; ehiza-hegaztien praktikak ikusteko lekua; eta fauna basatiko animaliak. Zentroaren eskaintza iraunkortasunean, ingurumenaren errespetuan eta birziklapenean oinarritutako tailerrekin osatzen da.

Zentroa Mikel eta Angel San Martín anaiena da, eta 60.000 euroko aurrekontua du. Irantzuko Lurrak turismo-elkarteak sustatutako leku horrek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du (7.000 euro), "TEDER elkarte" Toki Ekintza Taldearen bidez bideratuta, turismo-jarduerak sustatzeko ekintzen barnean. Europar Batasunak ere 8.000 euroko diru-laguntza eman dio.

Baserri-eskola honen helburuak honako hauek dira, besteak beste:



Ezkerretik eskuinera: Roa, Oroz, Mikel San Martín, Rebolé, Apesteguía eta Angel San Martín.



Baserri-eskolaren ikuspegi orokorra, Lezaun udalerria atzean ikusten delarik.

biztanleak, haurrak bereziki, kontzientziaztea ingurumena zaintzea zer garrantzitsua de jabe daitezen; landa-eremuari lotutako turismo-jarduerak sustatzea eta, aldi berean, enplegua sortzen eta Estellerriko ekonomia hobetzen laguntzea.

Gaur goizean egindako baserri-eskolaren inaugurazio-ekitaldian parte hartu dute: Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko zuzendari nagusi Juan Pablo Rebolék; eta Nafarroako Gobernuko Turismoko Produktuen Marketin eta Garapen Zerbitzuko buru Mamen Orozek. Bertan izan dira ere, TEDERko Cristina Roa eta Irantzuko Lurren ordezkari Charo Apesteguía.